

**¿QUÉ SIGNIFICA HABLAR?  
(ECONOMÍA DE LOS INTERCAMBIOS  
LINGÜÍSTICOS)  
PIERRE BOURDIEU  
AKAL/UNIVERSIDAD, 1985**

**Joxe Manuel Odriozola**

*Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea*

Soziologia kritikoa deritzon mugimenduaren barnean aski ezaguna da Pierre Bourdieu. Hasiera-hasieratik nabarmendu zen bere ekarpena: marxismoan ohikoak ziren metodo-bideak alde batera utzi eta mundu sinbolikoaren ikerketari ekin zion. Irakaskuntza, artea eta oro har kapital sinbolikoaren ardatzean egituratzen diren botere-mekanismoez azterketa sakonak egin dizkigu Bourdieu-k.

Zoritxarrez, hizkuntzaren auziari, soziologiaren aldetik hartuta, gutxitan heldu dio. Baina heldu dion hartan inor gutxik bezala igarri dio hizkuntzaren dimentsio sozialari. Horietako bat eskuartean dugun liburua da, eta hemen ere gure eremuan erabat sartzen ez bada ere, bere intuizio sakonaren iradokizunak ez dira ahanztekoak.

Hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa aztertzeko hizkuntzalaritzaren aldetik eraikitako eragozpenak aipatuz hasten da Bourdieu. Horretarako, hain ezaguna den dikotomiaren aipamena egiten du: alegia, hizkuntzalaritza modernoaren «kanpo hizkuntzalaritza» eta «barne hizkuntzalaritza» arteko bereizkuntza makurra. Geroztik, hizkuntza auzi gai soziologikoa izanda ere, hizkuntzalariengana jo izan da iritzi eske, eta hauen soziologia espontaneoak delako egoera horren gainean argibideak eman

ordez, lardaskatu eta estali egin izan du hizkuntza gatazkaren muina.

Zer dio, beraz, bere hitzetara jota? Honela dio: *«En efecto todo el destino de la lingüística moderna se decide en el acto de fuerza inaugural por el cual Saussure separa la 'lingüística externa' de la 'lingüística interna', y, reservando a esta última el título de lingüística, excluye de esta disciplina todas las investigaciones que relacionan la lengua con la etnología, excluye la historia política de los que hablan o incluso la geografía del ámbito en que se habla, ya que no aportaría nada al conocimiento de la lengua considerada en sí misma. Nacida de la autonomización de la lengua con relación a sus condiciones sociales de producción, de reproducción y de utilización, la lingüística estructural, al convertirse en la ciencia dominante en las ciencias sociales, necesariamente tenía que ejercer un efecto ideológico, dando apariencias de cientificidad a la naturalización de esos productos de la historia que son los objetos simbólicos».*

Oraindik ere begien bistan ditugu «efektu ideologiko» horiek euskararen auzia mintzagai hartuta hizkuntzalari edo euskalariren bat tartean dugunean. Jadanik ezin da ukatu noski hizkuntzaren izari soziala, baina, nolahi ere, itxurazkoa baizik ez da izango bere pentsakeran hizkuntzaren osagarri soziala: alde batetik aitortzen duen alderdi soziala eta politikoa, bestetik desagertarazi egingo du euskararen etorkizuna euskaldunen «borrodatean» datzala esanaz.

Gatozen harira, ordea. Zertan da Bourdieurentzat elkarrekintza sinbolikoen egoera erreala bateko eta besteko joera desegokiak alde batera utzita? Hots, bateko ekonomizismoa, eta besteko kulturalismoa. Non dago batzuen (hiztunen edo giza taldeen) legitimitate-indarra eta besteen murruntza-egoera? Komunikazioaren elkarreaginean, izan ere, botere-harremanen determinazioa funtsezkoa da: *«no hay que olvidar que esas relaciones de comunicación por excelencia que son los intercambios lingüísticos son también relaciones de poder simbólico donde se actualizan las relaciones de fuerza entre los locutores y sus respectivos grupos. En suma, hay que superar la alternativa corriente entre el economicismo y el culturalismo, para intentar elaborar una economía de los intercambios simbólicos».*

Kulturalismoaren desbiderazioak gurean izugarriko eragina du. Eta esango nuke bere eragina gero eta handiagoa dela euskalgintzaren eremu zabalean. Hizkuntza elkarrekintzaren kontzeptua gizarte-egitura eta harremanen gaineratik kokatzeko joera ukazina baita euskaltzale gehienek kasuan. Egia da, jokoera horrek badu bere giltzarri zilegiztatzailea: euskara gizarte-indarren baitako osagaitzat harturik, gizarte-gatazka horri buruzko jarrera hartzea eskatzen du euskararen auziak, eta jarrera hartze horrek euskaldunon arteko banaketa omen dakar. Horra, beraz, arrazoa. Halaz guztiz ere, hizkuntza borrokaren taktika-jokoa zentzuzkoa dirudien horrek, ezin du zinezko errealitatearen izaera ezabatu: euskararen zoria botere sinbolikoen (kultura, ideologia, herri-baloreak) alorrean erabakitzen da, besteak beste, eta hori gizarte-sistema osoari darion errealitatea da, hemengo indar politikoak barne.

Zer esan ekonomizismoaren desbiderazioari buruz? Ez dago barrunbe ilunetara jo beharrik, joera honen mugak eta ezinak zenbaterainokoak diren jakiteko. Aski, horretarako, bi hiztun-eredu aurrez aurre jartzea, eta bataren eta bestearen estatus sozioekonomikoa kontutan harturik, estatus hori eta hizkuntza estatusaren arteko asimetria erreparatzea. Alegia, nola esplikatzen da hiztun-agente «boteretsu» (gizarte-klase goren samarreko euskaldun hiztuna) bat eta hiztun-agente «boteregabea» (estatus sozial baxuko erdalduna) bat elkarrekin daudenean, azken honek bere hizkuntza inposatu ahal izatea besteari, egitura ekonomikoan bien aldea hain nabarmena izanik? Adibide honek, besteak beste, zera erakusten digu: hizkuntzaren estatus soziala ezin dela, besterik gabe, maila ekonomikora murriztu.

Goazen orain beste problematika bati buruz mintzatzea. Euskaldunontzat hil ala bizikoa den problematika, globalizazioaren zenbait ideologok besterik sinestarazi nahi badigu ere. Estatuaren eta hizkuntza ofizialaren arteko lotura aztertzen digu Bourdieuk hemen. Bata bestearen ondorioztat jotzen du: hizkuntza estandarren modernizazioa hizkuntza merkatu nazionalari zor zaio, eta merkatu hau Estatuaren eskutik sortua eta egituratua izan da. Logika honen ildoan, hona galdera: nola ezarri daiteke euskara batuaren kodea euskal gizartean aldi berean hizkuntza merkatua sortzeko eta finkatzeko euskal Estaturik ez baldin badago? Estatu-nazioa krisian dagoela? Iritzi hori arestian kritikatu dugun ekonomizismoaren beste aldaera bat da; ideologia ekonomizista honek, neoliberalismoaren globalizazioa tesitza harturik, Estatu-nazioaren izaera eta funtzionamendua egitura eta harreman ekonomikoetara murrizteko isuria dauka. Eta itsutu egin da erabat egungo nazioartekotasun-sintomak somatu bezain agudo.

Honela sortu zen hizkuntza merkatua Bourdieuren arabera: «*La lengua oficial se ha constituido vinculada al Estado. Y esto tanto en su génesis como en sus usos sociales. Es el proceso de constitución del Estado cuando se crean las condiciones de la creación de un mercado lingüístico unificado y dominado por la lengua oficial: obligatorio en las ocasiones oficiales y en los espacios oficiales (escuela, administraciones públicas, instituciones políticas, etc.) esta lengua de Estado se convierte en la norma teórica con que se miden objetivamente todas las prácticas lingüísticas. Se supone que nadie ignora la ley lingüística, que tiene su cuerpo de juristas, los gramáticos, y sus agentes de imposición y de control, los maestros de enseñanza primaria, investidos de un poder especial: el de someter **universalmente** a examen y a la sanción jurídica del título escolar el resultado lingüístico de los sujetos parlantes*».

Bourdieuren hizkera (hizkuntza merkatuaren kontzeptua, adibidez) eztabaidagarria izan arren, ez da bide txarra hizkuntzen arteko lehia eta gatazka erreparatzeko. Orain artekoari dagokionez, Estatu-nazioaren mugak ezarri du hizkuntza merkatu horren luze-laburra eta funtzionamendu-legea, eta orain bere gainetik ere sortuak daude nazioarteko hizkuntza merkatuen joerak. Auzi honetan bi planteamendu daude erabat kontrajarriak. Alde batetik, Estatu-nazioaren gainetik sortuko diren hizkuntza eta kultur merkatuen zabalerak efektu onuragarriak ekarriko omen ditu

Estaturik gabeko herri-mintzarentzat. Lehengo estatu-merkatuaren autarkiak baino aukera hobek askainiko omen dizkio mintzaira xumeari. Merkatu-aniztasuna, horretara, hizkuntza menderatuen aldeko aldaketa izango litzateke. Beste alde batetik, berriz, astero hizkuntza bat hiltzen omen da munduan Unesco-ren arabera. Nola ezkontzen da hau? Ekonomiaren eta kulturaren mundializazioak (azken batean, inperialismoak) ez ote ditu bada gauzak lehenaz gain are okerrago jarri? Hain zuzen ere, lehengo estatu-merkatuaren itomenari ez al dio orain nazioarteko hizkuntza hegemoniaren merkatu globalak hizkuntza inperialismoaren merkatu bakarra ezarri? Ingelesaren ezarpena eguneroko kontua da. Ni neu, bate-re zalan-tzarik gabe, bigarren hipotesiaren aldekoa naiz hizkuntza merkatuen eraldaketa honetan. Eta datu enpirikoak zentzu honetan mintzo zaizkigu munduan, tamalgarriri. Gero eta zailagoa izango da herri-mintzarentzat euren etorkizuna bermatzea egungo joera nagusien ondorio «hiltzaileak» kontuan harturik. Kultura inperialista honek ere edozein armak bezain ankerkiro hiltzen baitu herrien bizitza eta nortasuna.

Estatu-nazioen eskutik ezarritako hizkuntza «nazionalen» borroka hizkuntzen komunikazio-funtziora mugatu al zen? Beste modu batera esanda, hizkuntza merkatuen arteko lehian, mundu sinboliko berberaren adierazpena gauzatzeko hizkuntza bat edo bestea ezartzean ote zetzan? Ezetz dirudi. Ordezkapen hori ez dirudi hizkuntzaren kontu hutsa izan denik. Ordezkapenaren gatazka horretan eduki eta interes handiak zeuden joan, hizkuntza desberdintasunaz aparte. Egitura kulturalak eta ideologikoak, besteak beste. Eta hizkuntzarekin batera burututako etnozidua herri-identitate osoen suntsipena ekarri zuen sarraskia izan zen: «egitura mentalen» ordezkapena.

Hizkuntzarekin batera pentsamendu «nazional» bakarra zekarren atzetik prozesu hark Bourdieuk zehazten digun modura: *«Sería ingenuo imputar la política de unificación lingüística exclusivamente a las necesidades técnicas de la comunicación entre las diferentes partes del territorio y, especialmente, entre París y la provincia, o ver en ella el producto directo de un centralismo decidido a aplastar los 'particularismos locales'. El conflicto entre el francés de la intelligentsia revolucionaria y los idiomas o las jergas es un conflicto por el poder simbólico en el que se ventila la **formación** y **re-formación** de las estructuras mentales. En suma, no se trata sólo de comunicar, sino de hacer reconocer un nuevo discurso de autoridad, un nuevo discurso con un nuevo vocabulario político, con sus términos de identificación y referencia, sus metáforas, sus eufemismos y la representación del mundo social que vehicula. Por estar vinculada a los nuevos intereses de los nuevos grupos, resulta indecible para las hablas locales modeladas por usos ligados a los intereses específicos de los grupos campesinos».*

Hala ere, zenbat aldiz entzun eta irakurri behar izan dugu gizarte-iraultzen barrena hizkuntza ez dela «barnetik» aldatzen? Gizarte-egiturak aldatzen direla baina hizkuntzak lehengoan darraielatza? Eta, jakina, hori ez da horrela gertatu iraultza sozial askotan: gizartearen eraldaketak hizkuntzaren izaera semantikoan eta formalean aldatetako eragin ditu hemen

Bourdieu azpimarratzen digun legez. Hizkuntza ez baita gizarte-agerpen bat besterik. Orobat, ondo gogoan hartzekoa da beste datu hau ere, hizkuntzaren eta gizarte-moldearen arteko kidesuna. Kidesun hori, gutxien-gutxienez, maila ideologiko-kulturalean (egitura mentalen birmoldaketaz mintzo zaigu soziologo frantsesa) ezinbestekoa baita. Jar dezagun adibide soil bat hori frogatzeko. Nola demontre bideratu behar da euskararen gizarte-normalkuntza mundu sinbolikoaren sistema funtsez erdalduna den hiztunarekin? Hori ezinezkoa da, eta horrexegatik, ezinezko egitasmoa da ideologia nazionalaren aldaketarik gabeko hizkuntza normalkuntzaren asmoa. Gutxieneko kidesunak ez baldin badago, nola sortuko da hiztunaren baitan noraezko den hizkuntza atxikimendua? Eta edonork daki atxikimendu hori gabe hiztunak ez duela berea sentitzen delako mintzaira hori. Alferlana da, hortaz, euskal kulturarik (kontzeptuaren adiera operatiboan, ez kultura zentzu abstraktu-artistikoan hartuta: literatura, ohiturak...) gabeko euskalduntze-politika oro. Eta gaur artekoa, funtsean, horixe izan da. Geroa izango da lekuko, kidesun honekin sinesten ez dutenen ustea ustela dela jakiteko.

Euskararen gizarte-normalkuntza. Hitzetik hortzera erabilia, baina bere zinezko mekanismoen berri jabetu gabe gaude. Eta ez naiz ari euskararen politika ofiziala zurriz duenaz, herri-ekimenen eremuan dabilen hainbat topiko dut gogoan. Ezen, gure ohiko filosofia hankaz gora jartzen baitigu Bourdieuk hizkuntzaren gizarterapenaz ari denean. Irakur ditzagun arretaz hitzok: *«Así, los efectos de dominación correlativos a la unificación del mercado sólo se ejercen a través de un conjunto de instituciones y mecanismos específicos entre los cuales la política propiamente lingüística e incluso las intervenciones expresas de los grupos de presión sólo representan el aspecto más superficial»*. Gurean zer dago gai honen inguruan? Non-nahitik begiratuta ere, zera besterik ez dugu ikusten: «el aspecto más superficial» hori. Mintzo gaitezen argiro: alde batetik, botere autonomikoen (publikoaren) hizkuntza politika ofiziala (hots: «la política propiamente lingüística»), eta bestetik herri-ekimenaren eremuko euskalgintza (hots: «las intervenciones expresas de los grupos de presión»). Eta hizkuntza normalkuntza sozialaren alor hau prozesuaren alderdirik azalekoena omen da. Hala dio behintzat Bourdieuk. Eta oker ote dabil hemen? Ezetz esango nuke. Intuzio mailan besterik ez bada ere, uste hori aspaldikoa da nire baitan. Inoiz ez dut sinestu izan euskararen normalkuntza instantzia publikoetatik eta herri-ekimenen eskutik soilik etorriko denik. Hizkuntzaren izari sozialak askoz ere erro sakonagoak ditu gizarte-harremanen alorrean, eta egiazko eta zinezko gizarte-indar sozialen errealitatean bakarrik erabakitzen da hizkuntzen patua. Hizkuntza politikak ez du inoiz hizkuntza bat gizarteratuko hizkuntza horren adar sozial guztiak globalki bereganatzen ez dituen bitartean. Eta egiteko hori ez da dago aginte publikoaren esku batez ere; ezta herri-ekimenen ahalmenean ere. Boterearen mekanismo hegemonikoek bakarrik salba dezakete hizkuntzaren jarraipena.

Hori horrela bada, nola dakusa Bourdieuk legeriaren eragina hizkuntzaren gizarte-estatus aldaketa horretan? Legetasunaren inguruko kontzep-

tua badirudi polibalentea dela, eta ez dela aise jakiten zeinek zer adierazi nahi duen legearen eraginkortasuna mintzagai dugunean. Bi adiera nagusitzen dira funtsean: bata, hemen Bourdieuk darabilena, eta legetasunaren aitortpen eta ezagutza formala eraginkortasun urrikotzat jo izan duena; eta bestea, legetasunaren kontzeptu materialista aplikatzen duena, non legea ez den arauen sistema formaltzat erreparatzen, baizik eta gizarte-jardunaren baitan txertatua dagoen izaera sozialtzat. Adibidez: ez dago legerik gabeko errepresiorik eta ez dago, halaber, errepresiorik gabeko legerik. Hemen legetasuna ez da gizarte-jardunaren «kanpotik» dagoen zeratzat hartzen.

Zein zentzutan darabil Bourdieuk legetasunaren izaera hori? Garbi dagoena gauza bat da: lehenengo kontzeptuaren adiera ez duela asko baliosten. Ikus dezagun, bada, hizkuntza-izaera legitimoa, hain berea duen adjektibo hori, zer-nolako harremanetan dagoen legetasunarekin. Hauxe dio funtsean: *«El reconocimiento de la legitimidad de la lengua oficial no tiene nada que ver con una creencia expresamente profesada, deliberada y revocable, ni con un acto intencional de aceptación de una 'norma'; en la práctica, se inscribe en las disposiciones que se inculcan insensiblemente, a través de un largo y lento proceso de adquisición, por medio de las acciones del mercado lingüístico. Disposiciones que se ajustan, pues, independientemente de todo cálculo cínico y de toda coerción conscientemente sentida, a las oportunidades de beneficio material y simbólico que las leyes características de formación de precios en un cierto mercado brindan objetivamente a los poseedores de un cierto capital lingüístico».*

Hemen badaude para bat gauza komentatzeko. Lehenik eta behin, legearen edo arauaren onarpen formalak ez du subjektuarengan harekiko legitimitate sozialik sortarazten. Esate baterako, euskararen egoera sozialak nahiko argi erakutsiko digu zer esan nahi dugun: euskararen izaera ofizialak besterik gabe ez du hizkuntza horrekiko legitimitate-sentierarik eragiten pertsonarengan. Legearen eraginkortasun formala, beraz, hutsaren hurrengo da aldibereko legitimotasun sozialak (hots: hiztunak hizkuntzarekiko duen dependentzia objektiboa) ez baldin badu babesten. Eta bigarrenik, subjektuaren jokamoldea arautzeko eta moldatzeko daukan indarra ez da subjektuak berak modu kontzientean bizi duen errealtatea, ezarian-ezarian ezarritako giza haztura baizik. Gure artean asko hitz egiten dugu motibazioaz eta kontzientziatz, giza portaeraren zutabeak horiek bailiran. Alabaina, hizkuntza atxikimenduaren mekanismoak askoz ere sotilagoak eta konplexuagoak direla ematen du. Giza jokamoldearen dialektika indarrean dauden botere-harremanen eskutik moldatzen dela dirudi, harreman horiek eraikitzen dute hiztun-subjektua, eta ez gizarte-errealtatearen «gaineratik» ezarritako mezu ideologikoek.

Amaitu aurretik beste bi puntu. Bata hizkuntza indarraren kontzeptuari dagokio. Nola definitzen da, alegia, hiztunaren indar-erakarpena? Zertan da hiztunaren hizkuntza boterea? Maila mikrosoziologikoan ala maila makrosoziologikoan zehazten da botere hori? Puntu honetan interakzionismo sinbolikoaren baitan nagusi den ikuspegi mikrosoziologikoa sala-

tzen du Bourdieuk, eta ez zaio falta argudiorik salaketa horretarako. Hitz hauen bidez planteatzen digu arazoa: «*A través de las lenguas habladas, los locutores que las hablan y los grupos definidos por la posesión de la correspondiente competencia, es toda la estructura social lo que está presente en cada interacción (y, así, en discurso)*». Nor eta zer mintzo da bi pertsona mintzo direnean? Horien arteko kontua da, ala horien arteko kontu hori testuinguru osoak determinaturik dator? Bi hiztunen arteko hizkuntza jarduna ez dirudi bi pertsonen arteko kontua denik: «*se debe a la relación objetiva entre las lenguas o los correspondientes usos, es decir, a la relación objetiva entre los grupos que hablan esas lenguas*». Hori horrela izatekotan, zertan da gure arteko topiko gogaikarria: hau da, nor bere aukera librea egiten duela hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko, pertsonaren esku dagoela aukera hori, eta ez indar «ezkutuen» mirabe. Sustrairik gabeko planteamendu hau garun-muinean erabat sarturik daukagu, eta hiztunaren aukera «librean» sinestuta bizi gara. Baina pertsona hori, iritzi idealista horren argitan, gizarte-abstrakzio guztiak egin ondorengo giza izaera «izpiritual» hutsala baizik ez da.

Eta bukatzeko munta handiko faktore bat: «**estrategias de condescendencia**». Zer da estrategia hau? Eta nola darabil gurean erdaldunak bere alde eta euskaldunaren aurka? Estrategia honen baitan dago hizkuntza jarrera eta portaeren giltzarria, eta erdaldunik euskotarrena ere larrugorritan jartzten du; hiztun nagusiak egiten duena zergatik egiten duen azaltzen baitu, egiten duen hori aitortu gabe. Honela zirriborratzen digu delako estrategia hori: «*La estrategia de condescendencia consiste en **beneficiarse** de la relación de fuerzas objetiva entre las lenguas que en la práctica se enfrentan en el acto mismo de negar simbólicamente esa relación, es decir, la jerarquía entre esas lenguas y quienes las hablan. Semejante estrategia es posible en todos aquellos casos en que la diferencia objetiva entre las personas en presencia (es decir, entre sus propiedades sociales) es lo bastante conocida y reconocida por todos (y en particular por quienes están presentes, como agentes y espectadores, en la interacción) para que la negación simbólica de la jerarquía permite acumular los beneficios vinculados a ella y los que procura la negación completamente simbólica de esta jerarquía, empezando por el refuerzo que implica el reconocimiento concebido a la manera de utilizar la relación jerárquica*». Txit argigarria delakoan nago hiztunaren jokabidea zertan den argitzeko. Hiztuna, azken batean, «propieta sozial» batzuk dituen subjektua izanik, tasun horien arteko hierarkiak erabakitzen du zeinek zein mintzaira erabili, hizkuntza elkarrekintzako baldintza objektiboak barneratuak baitituzte hiztunek. Eta, jakina, hizkuntza errealitate sozio-linguistiko objektiboan nagusi diren legitimitate sozialaren indarrez baliatuko da hiztun nagusia, erdalduna gurean, bere hizkuntzaren «aukera» egiteko. Baina, berez, «aukera» hori alde aurretik eginga dauka.